

BEDERATZI KONTU TXIKI

Garbine Ubeda

elkarri irakurriz





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Garbine Ubeda

Bederatzi kontu txiki

azala:

Idoia Beratarbide



elkarri irakurriz

Amaiur

35 urteko gizasemea eta lau zpabost urteko mutiko bikiak hondartzara heldu dira korrika, hilabetetan espresuki debekatuta egon dena eta hurrek inoiz egin ez dutena egiteko plazeraz: hondarrezko gaztelua eraikitzen ari dira elkarrekin. Aurrez ongi planifikatutako eskemari jarraitzen diote: haurretako batek hondar hezea ateratzen du eskuareaz; besteak, palaz, kubo gorri batean bildu eta aitari eramaten dio; aitak, azkenik, eskuz, Erdi Aroko gotorlekuari ematen dio forma.

Katean antolatutako ahaleginak emaitza bikainak eman dizkie eta aitak, bereziki harro, txaloak hartuko lituzke gustura. Areago. Egin izan balizkiote bezala, irribarre gozoz saritzen ditu ondotik pasatzean begirada luzatzen duten guztiak. Amaitu duenean, bizkar-zorrotik plastikozko ontzitxo bat atera, barruan dakartzan hur xigortu apurrak jan eta haurretako bati bota dio oinetara.

—Urez bete ezak, mesedez —eman dio agindua.

Azken ukituak eman nahi dizkio gaztelutzarrari, hatzak bertan busti eta hondarrez egindako paretak ondo zipriztindu, trinkotu daitezen. Bitartean, auto txikiak, playmobilak eta plastikozko zaldiak barreiatu ditu bigarren haurrak.

Hunkituta daude hiruak, eta harmonia ederrean hasi dira jolasean, plastikozko biztanlez populatu berri duten parke tematikoaren inguruan. Banderatxoa ere ipini diote, xingoma baten bildukia eta aitak ahoan zerabilen zotza baliatuz.

—Onak gara gero! —egin dio bibaka aitak bere buruari, zutik jarri eta erretratu panoramiko atera duenean.

Eta badator itsasgora. Badator etsai suntsitzaile bihozgabetua, erasokor eta tarrapataka. Ezustean harrapatu ditu denak. Olatu aurrelariak zaflada eman dio kaskagorrienari, itsasoari bizkar emanda lurrean eserita zegoen mutikoari. Marruka hasi da bainujantzi barrenak lokaztu dizkionean. Madarikatzen anaia bikia ere, olatu berak, atzeranzkoan, playmobil gladiadorea xixkatu nahi izan diolako. Zitzu batean zutitu dira biak. Datorkienaz jabetuta, zapuztuta, amarengana doaz korrika.

Aita ez dago, ordea, etsia berehalakoan hartzeko.

—Zatozte hona koldarrak! —Egin die gogor orroka. —Utzi mainak eta defendatu ohorea! Egurra, gizonook!

Bainujantzi luze-zabal hawaiiarra armaduratzat hartu eta pala lagun, gaztelu aurreko hesiari eusten saiatzen da kosta ahala kosta. Gurasoen LP batetik hartutako abestia ekarri du ahora: “Amaiurko gaztelu baltza”, gero eta ozenago, “berrehun gudari, oro sumin”, besoa gora, “zaintzen zaituen zaldun onak”, hankak zabal eta dena emanda...

Ui. Emaztea dator, di-da, di-da, pauso motz azkarrean. Shin-chanen ama Misae dirudi.

—Erotu egin zaik edo zer demontre! —bota dio eskuak gerrian jarrita, —Zein ote den umeago!

Gizona, desarmatuta, bainujantzi luze-zabal hawaiiarra berera ekarri eta haurren bila joan da burumakur.

Batere espero ez zuen tokitik galdu du erreinua.

TAO

Ordainduzko aparkalekuen zaindaria, Hendaiako hondartza aldean ikusten direnen arteko zaharrena, ozpinduta dago, bere praktetan ezin kabiturik. Lehenagotik ere arauak zurrun betearazten zituena, inoiz baino zorrotzago ari da hilabeterik emankorrenetan; jo eta su, bizikleta hankartetik atera gabe, isuna hemen eta isuna han, udalari doako minutuak ostu nahi dizkioten lotsagabeen kontra, autoen haizetakoetan paratzen dituzten iragarkiei lehia desleiala eginez.

Erretxinduta dabil, erretxinduta dabilenez. Eta temoso gainera, uztailaren lehenaz gero Hyundai beltz bat, matrikula espainola, begiz jo zuenetik. Zonalde bertsuan aparkatzen dio ia beti, itsas ibilbideko marra-tarte preziatuenetan, eta zorioneko papertxorik jarri gabe alde egiten, gogoak ematen dion arte. Zapelatza. Gustura esango lizkioke bi egia, justuki autotik ateratzen ikusiko balu. Ez harrapatzen, ordea.

Aspaldidanik ezagutzen ditu mota horretako alprojak. Ministro plantak eginez urruntzen dira, ticket-makinei muzin egin eta betaurreko ilunetatik ere harrokeria dariela, atzerriko matrikula dutelako, bateko eta besteko ogasunak konektatuta ez daudela jakin badakitelako; txarreanean ere, tramitatuko ez den isuna jarriko zaiela egiaztatuta dutelako. Betikoz libratuko direlakoan. Malapartatuak. Baina helduko zaie noizbait sanmartina, alajaina.

Eguerdia. Hortxe da Hyundai beltza. TAO paperik gabe, jakina, eta bezperako isuna, eta beste mordo bat ere, bistan utzita. Eguteran imajinatu du jabea, neskaren baten txitxiak biguntzen.

Inguru estuan zelatan gelditu delako, lortu du azkenean automobilean bizi seinalerik ikustea. Badoakio korrika. Haren atzetik dabilela burutik pasatu zaizkion guztiak, edo behintzat horien erdiak, botako dizkio ziplo, gidariaren aulkian eserita dagoen gibelandi horri. Burumakurtzea nahi luke. Zein aitzakia zoro jartzen duen aditu, are epelagoak aurpegiratu ahal izateko. Eta hantxe jarri zaio tente, ate ondoan.

Harrokeria maskulinoaren orde, ezpain gorri hipnotizatzaile batzuk agertu zaizkio, ordea, kristalaren bestaldean. Leihotik aterata mintzo zaizkio. “Ui, maitea, zu al zinen atzetik nerabilkiena?”, Marilyn tuntunarena eginez, andere sentsuala. “Badakit ederki dibertitzen zarela nire kontura, baina oporrak bukatu zaizkit eta banoa, guapetón”. Desarmatu egin du. “Zer? Beste ohartxo bat? Emadazu hori ere!”, eta besteekin batera jarri du pilan, txintik atera ez duen eta Luis de Funes dirudien TAO-zaindariari begia kliskatu ondoren. “Oroigarri gisa gordeko ditut”.

Udalak ordaindutako hamar minutu behar izan ditu umiliazioa gainditzeko. Berriz ozpintzeko. Begiak zorrotzu eta, oraingoan, frantses matrikuladunei haginka egiteko.

Nadal-Federer

Dandy planta duen gizon mehar lepamotza eta emakume gihartsu betaurrekoduna –bikotea, itxura batean–, palan ari dira hondartzan, itsasbeherak utzi duen zabaldegia aprobetxatuz.

Gizona, Eurosport kanaleko tenis partidei begira ikasitako teknikak aplikatzen saiatzen da, erritmoa ezartzen, dotoreziaz aritzen, pilota-kolpeak gozatzen. Emakumeak indarra eta abiadura ditu arma nagusi, eta senak agintzen dion bezala erantzuten dio erasoari, alegia gogor, gizonak baino zakarrago eta baldarrago beti, baina hainbestean.

Pilota galtzen duen bakoitzean ikasgaitxoa ondorioztatzen dio gizonak, gomendiozko tonu paternalista pala bera baino hobeto dantzaten duela: “Horrela errazago asmatuko zenuke”, eskumuturra modu berezian biratuz; “sakean, postura honetan jartzea komeniko litzaizuke”, hankak zabaldu, gorputza gerritik gora kizkurtu eta jauzi txikitxoak emanez, ezker-eskuin; “botea oso aurrean emango balizu, hauxe egokiena”, besoa gorputzetik urrundu eta pala etzanda bezala jarrita... Andrea, isilik, keinurik ere egin gabe.

Pilota hark galtzen duen okasioetan ere berdintsu, lezioa eman behar izaten dio emakumeari, baina kasuotan, aginteran: “Jarri atzexeago”, marra zapaldu ote duen galdetuz eta tantoa susmagarri bihurtuz; “Erantzi betaurrekoak”, huts egin badu, kristalaren ispilu-efektuz itsutu delako izan dela iradokiz; “palaren ertzaz ez eman”, amarruetarako tentazioak ekidin behar direla adieraziz...

Luze doa partida. Txintik atera gabe jarraitzen badu ere, pazientzia agortzen ari zaio emakumeari. Eten txiki bat eskatu, izerdi patsak lehortu eta etxetik ekarri duen botilari zorrotada bat kentzea otu zaio. Horretarako ere marmarra du gizonak: “Hobe zenuke freskagarriak gerorako utzi”; “jokoan kontzentratu beharko zenuke”, “azukreak gizendu egiten du”... Ufada luze bat bota ostean, zinta zabala kopetan eta pareo motza gerrian itzuli da pistara. Roland Garros finala dirudi orain.

“Hamalau izango ez bazina!”, atera dio tantoa saketik. Eta “beti azken hitza eduki nahiko ez bazenu!”, handik gutxira, efektuz. Eta “ondokoak gutxiesteko horrenbesteko lanak hartuko ez bazenitu”, eta “beti zure muturra egin beharko ez balitz”, baldintzazko perpausak binaka erotzen utzita, oraingoan bolean. Eta, “behingoz bake pixka bat emango bazenit!”... Lau dira lau, segidan irabazi dizkion tantoak eta hortxe doakio azken palakada. “To!” esan eta tokitara bidali du tipoa, pilotaren bila.

Atzera itzuli denean, urruntzen ikusi du anderea. Zer gertatu den zipitzik ulertu gabe, jolas eremuko hondarrean idatzi dion ohartxoa irakurri du: “Game over”.

Erretiroa

Azken hogei urteetako oporrak apartamentu berean eman dituen udatiarra hortxe da berriz ere, balkoiko plastikozko besaulkian eserita eta egunkaria magalean, egunero bezala, egun osoan bezala. Orduak emango ditu bertan, orri inprimatuak bibotea litzazeko edo betaurrekoak sudurrean gora egiteko besterik askatzen ez dituela. Aurretik hasi eta atzeraino irakurriko du, eskaintzen dizkion leihotxo guztiak zorrotz behatuz, atalak ordenan ondo erreparatuz. Eta miatzeko zirrikiturik gelditzen ez zaionean, egunkaria erditik tolestu, alboan utzi eta mahai gaineko nobela mardula hartuko du, John Grishamen azken biblia dirudiena, bista urrutira luzatzea komenigarri izaten den arren, noizik eta behin.

Hortxe da emaztea ere, zapia eskuetan, egunero bezala, egun osoan bezala. Bere gain hartuko dituen zeregin guztien artean, kristalak gardentzeak joko dio luzeen, begiratoki zabala eta sukaldeko leihoa bertan ez baleude bezala uzteak. Halako batean balkoira irtengo du berorrek ere, sukaldeko armak barruan utzita, plastikozko bigarren besaulkian esertzera; eta senarrak ondo zimurtutako egunkariko denbora-pasen orria libre baldin badago, hitz gurutzatuen koadroa osatzen saiatuko da, boligrafoa hatz lodien artean hartuta, betebeharren ordainsari gisa.

Beharbada, hondartzara joan-etorria egingo dute gero. Edo beharbada, supermerkatuainoko itzulia, afaltzeko jangairen bat erosi eta ezer gutxi gehiago, etxe barruan sumatzen den jarduna kontuan hartuta. Udako egun euritsuetako asperraldia baino gehiago, bizi estiloa dute haxe. Adinak erretiroa hartzera behartuz geroztikako errutina da gizonaren kasuan. Ezkontzearekin batera bere buruari ezarritako lanen agenda, emaztearen kasuan.

Badira bospasei urte, elkarrekin igarotzen dituzten egunak segidan datozela, iganderik edo jaiegunik antzeman gabe, apartekotasunik gabe. Bada bolada luze bat, etxepetik pasatzen diren turisten txankleta hotsengatik ez balitz, opor girorik ere bereziko ez luketena, udako apartamentura etorriak diren arren.

Senar-emazteen krisirik beltzenez daude harrapatuta. Gizonaren lantoki ohia astindu zuen sektore-konbertsioak, beste herri batera aldatu beharrak, alabaren nerabezaro gordinak eta droga arazoak, aitonaren gaixoaldi luzeak, menopausiak edo iragan berri den krisiak lortu ez zutena ekarri die seme-alaben aldegitak eta erretretak: elkarri zer esatekorik ez edukitzea. Elkarri begiratzeko arrazoen galera.

Salbuespenekoa dute gaur balkoian. Urtebetetze-tarta ageri da plastikozko bi besaulkien artean dagoen mahaiaren gainean, erdian kandela bakar bat duela. Zalantzak sortzen dizkio emakumeari, piztu edo ez piztu. Nola laga su eman gabe, horretan baldin badatza postrearen grazia. Baina zertarako piztu, batere gogorik gabe ufatzeko eta berehala itzaltzeko izango bada. Kandela ziztrinaren orde, bizi berri bati ekiteko adorea dirudi.

Oparia

Agure karraskaria bere urtebetetze ospakizuna antolatzena behartu dute seme-alabek. Familia elkartzeko aitzakia omen, eta ilobak ikusteko aukera paregabea. Nola esan, alargundu zenetik jasangaitza zaiola jendartea. Nola adierazi, aspaldion seme-alabak berak baino are gogaikarriagoak egiten zaizkiola haien ume setosoak. Nekatu egiten dute, nardatu, bere onetik atera, etxeko zokoak tifoiairen antzera iraultzen dizkiotelako. Pasa dadila albait agudoen eta bakea, dagoeneko ez baitu atzerabiderik.

Elkar hartuta, batera heldu zaizkio bisitariak. Zizka-mizkak eta freskagarriak mahaian zituen ordurako, eta behingoagatik libratuko zela uste zuen, baina hantxe atera dizkiote kandelak, haiek paratzeko tartarik erosi ez duen arren. Gorroto ditu ziri ziztrinak. Sekula ez du ohitura konprenitu, ezta emaztea zenak pizten zizkionean ere. Gerra garaiko gabeziak gogorarazten dizkiote.

Protestak protesta, ufatu egin behar izan ditu azkenean. Malkotan guritu zaizkio begiak, azken hatsa eman arte ondoan izan behar zuenaz akordatuta. Hunkituta gainerakoak ere, barrenkoa eta zorrotza izan den gizasemeari bihotza deskubritu diotelako. Abagune aproposa galdu gabe, kakofonian kantatzeari utzi eta oparia atera diote: Brita pitxerra, zelofanetan ondo bilduta.

Bere gogorrera etorrira, madarikatzen hasi da aitona. Eta gaiztotzen. Zertarako behar ote duen. Iturriko ura filtratzeko dela azaldu dio errainak, sanoago edango duela aurrerantzean. Bere iturriko urak ezer txarrik ez duela, besteak, zer dela-eta bururatu zaien zentzugabekeria horretan dirua xahutzea. Kloro zaporea kenduko diola, semeak. Kartutxoek zer arraio ote duten barruan, agure egoskorak, eta hilero aldatu beharra nahasmen handia dela, eta garestiegiak direla, eta erabilitakoa zein koloretako ontzitan bota behar ote duen, birziklatzen ote diren, zein txoribururi otu ote zaion. Bere adinean horrelako lanak ematea ere badela marka. Ezetz, demontre. Ez duela erabiliko. Itzultzeko.

Esker txarrekoa eta erremediorik gabeko kaskagorria dela iritzita, espantuka alde egin diote bisitariak. Agureak, berriz, ezin ezkutatu du amorrua, esandakoak esanda ere, pitxerra hantxe utzi baitiote, kaxa, zelofan eta guzti. Ez du bistan nahi. Etxe osoan barreiatu dizkioten txorizo zatiak erratzatu baino lehen, traste zaharren armairura eramane du, eta bakean sentitu da, bederen Gabonak arte behintzat ez zaizkiolako berriz etorriko.

Biharamunean, gosaldu berri dela, medikuak eskatutako gernu analisiarekin akordatu da. Baraurik jada ezin egin eta hitzordua atzeratzea otu zaio lehen kolpean. Errieta egingo diote, ordea, pronto txarreko sendagile horrek bereziki, hirugarren hutsa izango litzatekeelako. Eta hara non etorri zaion akordura zorioneko Brita. Trasteen armairutik atera, hanka artean jarri, bertan maskuria hustu eta filtratu dion txizaz analisirako potoa beteta, anbulatoriora jo du korrika. Kloroa garbitzeko gauza baldin bada, bere kafesne-zopen arrastoa ere disimulatuko dion ustean.

Mariano

Diplomazia handirik ez duen emakumeak aldameneko atea jo dutela sumatu du. Mariano bizi da bertan, urte asko dituen mutilzahar despistatua; erdi gorra delako, mintzalagunaren peskizan aritzen delako edo mundu paralelo batean bizi delako, elkarrizketa xelebretan kateatzen dena. Oin puntetan, atearen albora jo du emakumeak. Txulotxoan jarri du begia. Bikote heldu, ondo jantzi eta irribarretsu bat ikusi du. Jehovaren Lekukoak dira, goizeko bakea urratzera helduak.

“Espainola ala frantsesa zara?” ikasi nahi izan du bietako batek, irribarrea are zabalduz, mintzakidea azaldu denean. “Herri honetako akats endemikoa”, pentsatu du emakume barrandariak, “zein hizkuntzan egin behar zaizun jakiteko, zer nazionalitate duzun galdetzea”. Halaxe da. Eta larrutik ordainduko dute...

“Umm, zer esango nizuke ba...”, erantzun die Marianok, esaldia berresanarazi eta bost bat segundoko isilaldia pasatzen utzi ostean. “Burgin jaio nintzen orain dela... 78 urte, edo 79... paraje ezin ederragoa, tar-tar-tar”. Irakurri zalea ote den, lekukoetako batek. Baina Marianok ez du azalpenik bukatu: “Oso gazte nintzela Frantziara jo nuen lanera, Okzitaniako Tolosa aldera lehendabizi, haurrak txurroak bezala egiten zituen andre batek hartu ninduen apopilo, tar-tar-tar”. Galderak komunikazio hobea ziurtatzea beste helbururik ez zuela argitu nahi izan dio besteak, baina Marianori bost axola. Utzitako tokitik ekin dio berriz: “Non ginen... bai, handik hainbat urtera, 60ko hamarkadan, basomutilak behar zirela eta, tar-tar-tar”.

Jhovaren lekukoak ernegatzen hasi dira. Alderantziz behar lukeela adierazi nahi liokete agure berriketariari, alegia, hark entzun eta haiek mintzatu, baina alfer-alferrik. Bere historiako unerik garrantzitsuenera heltzen ari da Mariano. Korridoreko aulki tolesgarria hartu eta atarian eseri zaie. Akabo.

70eko hamarkadara heldu denean, berriro saiatu da bikotea, gogorrago oraingoan: “Jainkoak dio...”. “Kontu zerutiar asko entzunda nago ni, ez uste”, gailendu zaie berriz bizilaguna, “telefono konpainiarako posteak jartzen aritu nintzen garaian bereziki, Lourdesko gazte bat izan bainuen lankide, lagun fina, hura bai amabirjinaren jarraitzailea, harena bai fedea. Goizean goiz jaiki eta arrosarioa tar-tar-tar”.

Dagoeneko ez da irribarrearen arrastorik gelditzen bi lekukoan aurpegietan. Gizonezkoak, besapean dakarren zorroari kreamilera ireki eta aldizkari bat atera dio, azken hordagoa jotzeko: “Ez dakit argitalpentxo hau ezagutzen duzun...”. Baina Marianok eskuetan hartzeko imintziorik txikienik ere ez. Horren ordeztan, goizero liburutegi publikora joaten dela eta egunkari guzti-guztiak errebasatzen dituela esan die. Baita zaharrak ere, antza: “Boitila gizajoa ere hil zen, zera, Aita santua, poloniarra zen hura, tar-tar-tar”.

Mendea diruditen minutuen ostean, isildu egin da bat-batean. Adarretatik joan dela konturatu da: “Tira, baina espainola ala frantsesa naizen galdegin didazue. Gizarte segurantzakoak izango zarete zuek, ezta?”.

Jehovaren Lekukoak zur, lur eta mutu. Adarra jotzen ari zaielakoan, aldizkariak zorroan jaso, zorroa besapera itzuli eta elkarri keinu isila egin ostean eskaileretan behera jo dute kasik agur esan gabe.

Hortxe jarraitzen du Marianok, bikotea ezkaratzetik harago desagertu arte hizketan. Aldameneko emakume barrandariak eskerrak emango lizkioke gustura, uxatu dituelako, bere atea jotzeko gogoia kendu dielako, baina batez ere, aurkezpeneko galdera gogaikarriari erantzun gogaikarria emateaz libratu dielako. Baina atea irekiz gero, latza eroriko litzaioke hari ere.

Marrazkia

Zazpi urteko neskatoari izugarri gustatzen zaio marraztea. Irudi figuratiboak egiten ditu beti, surrealista samarrak nahi bada, baina identifikagarriak. Esate baterako, soineko luze haizatua zertxobait goratuz, takoidun oinetakoak eta galtzerdi koloretsuak erakusten ari den printzesa ilegorria, atzean jirafa kumea begira duela. Esate baterako, etxe eder eta harmoniatsuak bustitzen dituzten hodei negarti ezpain gorriak, handitik txikira sailkatuta ilaran. Esate baterako, bihotz zorionsu hegalaria, azenario-soro batean biribilketan, eta eguzkia, zergatik ez badakigu ere, haserre, trumilka... Bai. Sinpleki ederrak. Haren amak esana.

Gaur, goizeko nagiak atera orduko egin du bere afizioaren aldarria. Artean pijama eranzteke, margoak eta orri zuriak hartu eta egongelako sofara jo du zuzen, isil-isilik. Hantxe aurkitu du amak, beste askotan bezala, bera baino lehen jaiki dela jabetu denean. Samurki begiratu dio atearen hegitik. Neurriko altzariak aurkitzen ez dituen xinaurria iruditu zaio, berera hain buru-belarri bildua.

Bere katilua garbitzen ari dela —zereginei lotzeko karburantea balitz bezala edan du kafe lodia— neskatoa azaldu zaio sukaldean. Sortu duenaz harro dago eta ezagun zaio umorean. Kasik erreberentzia eginez erakutsi ditu “lantxoak” —hala izendatu ohi ditu, ikastolako irakaslearen eraginez—, bereziki hirugarrena, marigorringo arrosaz, pinpirin koloretsuz eta hegazti moko luzez jositako beste biren atzetik heldu dena.

“Ui... Bai berezia...”, murmurikatu dio amak bizpahiru segundoren ostean. Denbora irabazteko trikimailua besterik ez da izan. Edo hobeto esan, bistan jarritakoak eragin dion harridura —dezepzioa— ezkutatzeko modu inprobisatua. Betiko parafernaliari segitzen saiatu da. Alegia, hark marrazkia agerian jarri orduko, ikusitakoa komentatzen, irudimena gorai patzen, ahalegina txalotzen; teknika berririk erabili badu, hura ere nabarmentzen dio beti... Ezin izan du.

Izan ere, zirriborro urdin single eta baldarra iruditu zaiona erakutsi dio, orri osoa tindatu duen orban homogeen eta minimalista, batere apaingarririk gabea, hain... laua, hain... soila, hain, hain... geldoa... Ur-putzua margotu nahi izan ote duen otu zaio ama txundituari, eta “arraintxoren bat jarri izan balio sikiera”, larderiatu dio bere kolkorako. Gorroto du ordea, zer den galdetzea. Ez da bere estiloa. Sentsibilitaterik edo psikologiarik gabekoen baliabide merkea dela uste du. Hitzik esan ezinda, ordea, deseroso dago. Haurraren bat-bateko molde aldaketak justifika dezakeelakoan, etsi egin du azkenean, eta itauna luzatu dio:

—Itsasoa ote da? —atera zaio tonu neutro samarrean.

Begietako dirdira galdu gabe erantzun dio neskatoak, beratasunez, edo errukiz akaso, aurrez aurre duena kilo eta erdiko artaburua dela deskubritu izan balu bezala:

—Ez, ama. Artea da.

Bero galdua

Klimatologo entzutetsuari buruhauste latza sortu zaio. Aspertu arte erreparatu ditu datuak, unibertsitatera sarbideko azterketan notarik gorena atera nahi duen ikasleak nola. Beti oker nabarmenera heltzeko, baina. Eta akatsak berea behar du izan, ezinbestean, bere eragiketen oinarrian dagoen printzipioa fisikako legerik sakratuena baita, inork inoiz inola kolokan jarriko ez lukeena: energia ez da sortzen, ezta suntsitzen ere, transformatu egiten da....

Eta Lurrak, unibertsoko hutsean isolatua dagoen gure planetak, lege ukiezin horren adibide garbia behar luke, eskuartean duen ikerketak ere frogatu beharko lukeenez. Sinplea da ekuazioa: hainbeste energia jasotzen du eguzkitik, beste horrenbeste igorri behar du espaziora, forma aldatuta izango bada ere.

Parekatze matematiko horri, hala ere, doitze garrantzitsua egin dio: berotegi efektua (alegia, CO₂ isurketaz eragiten dugun desoreka termikoa). Beraz, Lurrak, bere izarretik datorkion energia ken berotegi efektuaren eraginez metatzen zaion kopurua igorri beharko luke espaziora. Hala behar luke, bai... Baina ez. Ez bederen, satellite eta zunden bidez eskuratzen dituen datuen arabera. Batek daki zergatik, 2003az geroztik, urtero, espaziora bidean beharko lukeen bero kantitate izugarri bati arrastoa galtzen dio. Hemen nonbait behar du, gure zero-lur-itsasoetan ezkutatuta, mozorrotuta... Misterioa.

Koitaduari neuronon zirkuitua laburtu zaio. Eta pazientzia. Eta jada ez daki non miatu. Arazo teknologikoa? Tresna neurtzaileak gaizki doituta ote daude? Ezin liteke, ordea. Egiaptapen horiek denak ondotxo eginak ditu. Espazioko zulo beltzen pareko energia zurrupatzaileak ote ditugu Lurrean? Eta hala balitz, non? Ozeano hondoetako arrakala abisaletan? Izan al lezake Lurrak hainbeste energia eta denboran horren luze bahituta edukitzeko biltegirik? Eta noiz arte gordeko du? Azaldu ote liteke bat-batean eta berotegi efektua bikoiztu? Bai?... Arranopola ...

Emazteak —zeinak, bidenabar esanda, klimatologia enpirikoaz ezer gutxi dakien eta uda izanik, oporrak ondo aprobeztatu nahi lituzkeen— ordenagailuaren aurrean gaupasa eginda aurkitu du ikerlari martirizatua, etxeko ganbaran egokitutako bulegoan. Presio eltzea dirudi, fit eta fut.

—Orain ere mundua konpontzen! —bota dio tonu mikatzean, 2003az geroztik sentitzen duen bakardadearen errua aurpegiratu nahiko balio bezala.

Kasurik ez, besteak. Nahikoa lan, bere buruari eusten.

Dena marru eta zaputza izan da hainbat minutuz, baina gero, gizonarekin berriz ere alferrik ari dela konturatuta eta bere onera etorrira, bakarriketan hasi da:

—Eguraldi kaxkar honekin zer arraio egin dezaket? —galdetu dio aireari, euria zalapartaka ari duela konturatu eta gero.

—Errezatu, maitea —erantzun dio ilargian galduta zirudienak, —errezatu...

Geurea da-eta

Donibane Lohizuneko Gambetta karrikari atarikoak egiten dion kafetegian gosalduz, itzulera prestatzeari ekin dio frantsesez aski ongi moldatzen den turista pareak.

Ez dute oporraldi luzea egin, ezta aurreko urtekoa bezain oparoa ere –larrialdia berpiztu litekeen beldurrez–, baina bikaina izan da, inoiz baino hobeto eten eta ahaztu baitituzte eguneroko errutinak. Ezagutzen ez den inguruan barneratzeak, izan ere, horixe bera du bere alde. Bestelako giro, jendarte, etxe, kale nahiz tabernatan ibiltzeak, gainera, hamaika ideia berri inspiratu dizkie pittaka-pittaka zaharberritzen ari diren apartamenturako.

Gaur, herrirantz abiatzeko bezpera, zeregin bat eta bera dute, gosaritarako mahaitik altxa orduko burutzeko: Gambetta kalea alderik alde eginez, diru-zorroan gelditu diren sos apurrak gastatu.

Kalean behera doazela, erdibidean edo, eliza bazterreko oroigarri-dendaren erakusleihoak harrapatu ditu amuan. Mila gauza bitxi, eta bazter hauetara heldu orduko atentzioa eman zien motiboa ikusi dute bertan, nonahi inprimatuta, zernahi apaintzen duela: txankletak, giltza-eraztunak, lanpasak, arropak, toallak, katiluak, kaierak, erosketarako poltsa tolesgarriak, barruko prakak, aterkiak, peluxeak... Lauki luze gorriaren erdian ikoroski berdea eta horren gainetik gurutze zuria duen bandera-moduko hori... Erakargarria egin zitzaien hasieratik, bereziki bietako bati, baina halaber betegarri samarra... Bere osoan ikur hori den toalla etxerako hartzea pentsatuta, saltzaileari joan zaizkio zuzen. Modu onean dagoela iruditu zaie, eta ezin izan dute ekidin. Mahaian zabal-zabal egin dien orduko, galdetu egin diote, zer esan nahi ote duen, zergatik den ageri toki guztietan. Saltzaileak Euskal Herriaren adierazgarria dela esplikatu die mantso, Espainian eta Frantzia banatuta dagoen lurraldea sinbolizatzen duen sinboloa dela, eta ikurrina duela izena...

Etxera biderako egunaren bezperan diren turistak bisigu aspertuaren begiak jartzen dizkiote, esandakoa aski ez eta historia apur bat azaltzera ere animatu den saltzaileari. Aski dutela iritzita, hitza eten dio bietako batek:

–Biziki interesgarria, baina izango ote zenuke motibo hauxe bera beste kolore batzuetan? Izan ere, gorri berde zuriak ez dio sobera ongi ematen gure etxeko dekorazio berriari...